

Nafarkaria

• ostirala • 2000ko uztailaren 7a

Egunkaria

Gehigarri honetan



Leitza • Bihar etorriko dira Leitzan, Areson, Lekunberrin eta Zubietan bi hilabetez izanen diren Saharako 24 haurrak
Luis Felipe Sarasa • «Iruñeko Ganbera Abesbatzak elitera itzuli nahi du»

Bainatzeko eremuak Nafarroan

• INAKI VERGARA



• INAKI VERGARA

Nafarrei hondartza «hurbildu» zaien honetan eta igerileku publikoak ugaltu diren honetan, oraindik ere bada ibaietara edo urtegiara joaten den jendea udako eguzkiak egosiriko gorputzak freskatzeko. Horiendako, bainatzeko hogeitau natur eremu kontrolatzen ditu urtero Nafarroako Gobernuak Ingurugiro Departamentuak. Horietako bi eremutan galarazita dago bainatzea, Burgin eta Murietan, eta beste guzien egoera nahiko ona da. Kloro eta gatzik gabeko bainua hartu nahi duenak badaki nora jo.

Bera • Gasteizko Itur Artea

Elkartearen lanak kultur etxean izanen dira ikusgai uztailaren 15a bitarte

Gasteizko 30 artista biltzen dituen elkarte da Itur Artea. Euren lanak zintzilikatu dituzte Berako Kultur Etxean, uztailaren 15a bitarte. Artearen espresio diferenteak bildu dituzte erakusketa honetan.



Egunotan Berako kultur etxean dagoen erakusketak Gasteizko Itur Artea elkarteko artisten hirurogei bat lan biltzen ditu. ● PABLO S. QUIZA

ORAIN URTEBETE SORTU zuten Gasteizko 30en bat artistak Itur Arte kolektiboa. Euren lana jendearen aitzinean erakusteko aukera gehiago eta bertzelako onurak bilatze aldera elkartu ziren. Gasteizen hainbat erakusketa egin ondotik, Berako Kultur Etxean zintzilikatu dituzte euren lanak. Erakusketa uztailaren 15a bitarte egonen da zabalik, egunero, astelehentik larunbatera, arratsaldeko 18:00etatik 20:00ak bitarte. Denetara 60 lanetik goiti ikus daitezke, aski estilo eta teknika ezberdinetakoak. Margolanak dira gehienak, nahiz eta tamaina txikiko zenbait eskultura ere bildu dituzten. Arte figuratiboa zein abstraktua lantzen dute, eta bodegoiak, erretratuak, paisaiak zein abstrakzio orokorrak ikusiko ditu bertaratutakoak. 18 artistaren lanak bildu dituzte erakusketa honetan, guztiak

ere gasteiztarak. Artisten artean jende gaztea zein adinekoa dago, lan artistikoarekin lotura duten jardueratan dabiltzanak, zein bertzelakoak, euren aisialdian margotzen dutenak, alegia.

Erakusketak osatzeko aukera bila

Lanak arrunt ezberdinak izanagatik ere, ekimen honen garrantzia azpimarratu du Arantxa Fernandezek, elkarteko lehendakariak. «Gasteizen ez dugu aukerarik gure lanak ezagutzera emateko. Elkarrekin arituz errazago izanen zela uste genuen, eta bakarka ibili ezin dituzun bideak ireki daitezke».

Dagoeneko zenbait erakusketa egin dituzte, eta jendearengana gerturatzeko asmoz, eta Gasteizen dagoen areto eskasia salatuz, ostatueta paratu dituzte euren hainbat lan. «Jendeak, gasteiztarrek, zer egiten dugun ikusteaz gain, aukera falta salatu behar da. Ostatu bat ez da lekurik duinena, baldintzak anitzetan betetzen ez direlako, baina bertze aukera batzuk ere eskaintzen dituzte, jendearengana artea hurbiltzeko balio baitute», erran dio Nafarkariari Arantxa Fernandezek. Taldea Gasteizen artearen arloan aritzen den edonori idekia dago, eta margolari eta eskultoreei ez ezik, «bertzelako arte adierazpenei ere irekiak» daudela gaineratu du Fernandezek.

→ Jon Abril

Massilia a Caesare capitur

AITOR TXARTERINA



Benetako poza hartu nuen duela zazpi egun Nafarkaria-ren txoko hau irakurri nuelarik. Bingen Amadoz zutabekide prestuak izkiriaturiko manifestua interes eta taxuz barnerratu nuen; ikaragarria da —ene artean bota nuen, debaui, testua amaitutakoan—, bai manera bai mamiari erreparatu gero, aspaldi honetan irakurri dudana zutabe polit, erakargarri, ironiko eta osoena hau baita. Bigarren sorpresa, atsegina berau ere, lagun hau, azkenik, estilo onaren jarraitzaile bilakatu zaigula ondorioztatzea. Bekaitz sana piztu zen ene gorputzean, amestuz neronek sina nezakeela halako perlarik. Lanaren fruitua da artikulu hau. Pentsamendu honekin bukaera eman nion Bingenen artikulua formaren gaineko hausnarketari.

Goraipamena

Eta mamia aztertzeari ekin nion hurrenean. Erotismoa euskal letretan sartzen ari zaigula / garela egia borobila da. Adibideak nonahi ditugu, baina ez naiz ni hasiko zerrendan lerrotzen diren oro; norberak bila bitza. Egia da, halaber, eleak eraberritu behar ditugula. Egokitu egin behar dugu euskara bizi dugun garaian eroso eta duin ibiltzeko. Tradizioan arakatu geroan mintzaten jarraitzeko, bizirauteko. Bertze egia galant bat: euskaldunok marketina faltan dugula. Jakin izan bagenu gure nazioaren errealitate ezkutua saltzen nazioarteko merkatuan, bertze nonbait geundekeen. Gutaz dakiten bakarra gerra, *War* eta antzeko egoeran gaudela, ankerrak eta itxiak garela, larrua ez dakigula jo-

tzen (ez dakitela erran nahi dut), eta abar nardagarri eta sasifaltsua.

Amaitzeko, publikoki Bingen Amadozi eskertu nahi diot eginiko lana. Aldarrikatze garaian gara, baina gutxitan aurkitzen ahal dugu aipaturiko aldarrikapen argi eta makatzailerik. Zentzu onekoak, zuzenak eta gizartearen iritzi aldaketak sor ditzaketanak. Iraultza txiki bat sortzeko gauza direnak. Halakoxea da Bingenen manifestua. Ene uste apalean, Rousseau, Zizeron, Fidel Castro edota Camusen tamainako ele-jarioa paratu zigun Bingenek duela zazpi egun egunkari duin honetan. Seguru asko data hau historikoa da dagoeneko. Ene gorazarre handiena hietako, Bingen.

Leitza • Saharako umeak gurean

Leitzan, Areson, Lekunberrin eta Zubietan egonen dira umeak bi hilabetez

Nafarroako 24 familiarekin udako bi hilabete igaroko dituzte beste hainbeste ume sahararrak. Leitzako, Aresoko, Lekunberriko eta Zubietako ordezkari eta familiak zain izanen dituzte.



Saharako 24 haurrek bi hilabetez izanen dute Leitzako, Aresoko, Lekunberriko eta Zubietako haurrekin jolasteko parada. • EGUNKARIA

DENA PREST DAGO SAHARAKO umei ongi gorria emateko. Umeak larunbatean goizean goiz iritsiko direla Bil-bora espero da, eta handik Leitzara etorriko dira. Eskoletako eremuan zain egonen dira Leitza, Areso, Lekunberri eta Zubietako familiak.

Urte osoa zain egon dira herri hauetako 24 familiak; izan ere, iaz, Aljeriako hegazkin konpainiekin edukitako arazoak izan zirela medio, Saharako umeak etorri gabe gelditu ziren. Gertaera honek tristura handia sortu zuen familien artean, eta joan den urtean izena eman zuten 33 familietatik

batzuek atzera egin dute. Beste batzuek aurrera jarraitu zuten Saharako elkartasun proiektu honekin, eta berriak ere azaldu ziren. 24 ume etorriko dira, eta bi hilabetez hemengo umeekin jostatzeko aukera izanen dute.

Lehenengo egunean ongi etorria emanen zaie, eta gero bakoitza bere etxera joango da. Azken batean, umeek egin behar duten bidaia luzea da, eta ezin da ahaztu ume hauek kanpamenduetatik ia

astebete lehenago ateratzen direla Europako herrialdeetara joateko. Horrek neke handia sortzen die, batzuek zazpi urte besterik ez dituzte eta.

Saharako ume hauek etortzen direla eta, hamaika bilerara egin behar izan dituzte batzordekoek, beharrezko tramite lanak asko zirelako. Baina ahalegin berezia egin dute jendea Saharako arazoei kontzientziatzeko. Dena den, umeak honera ekartzeko ez du hango arazoa konpontzen.

Elkartasuna adierazteko xedearekin, batzordeko kideek informazio kanpaina berezia antolatu dute: inguruetako herri aldizkari eta irrati-tan zabaldu dute euren asmoa eta zenbait ekitaldi antolatu dituzte. Esate baterako, 17 urtez espetxean izan diren Fatima eta Mamia Salek sahararrek euren bizipenak kontatu zituzten Leitzan iragan neguan.

→ Eli Belauntzarán



herri aldizkariak
Eduarne Elizondo

Jaibusu eta ehiza-postuak

GUAIXE hilabeteakariak Jaibusari eskaini dio bere azken zenbakiko erreportaia. Sakanako festetara joan-etorria egiten duen autobusari, alegia. «Negu guztia daramate lanean Altsasu, Etxarri eta Irurtzungo Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako langileek Jaibus 1sa ekimena prestatzen. Zer da Jaibusu? Sakanako herri desberdinetako festetara jendea eraman eta bueltatuko duen autobusa. Hau da, autobus hau Sakanako herri guztietatik pasatuko da, Irurtzunetik Ziordira, eta jaietan dauden herrietara eraman-go du jendea. Gero, ordu desberdine-

tan, jendea berriro etxera bueltatuko du autobusak. Beraz, sakandarrok, autobusa erabiliz gero, ez dugu kotxerik atera behar izango. Autobus hau antolatzekeo ideia, batez ere, Erriberan autobus hauek daukaten arrakasta ikusirik bururatu zitzaizen Sakanako-ri».

«Jaibus zerbitzua martxan jartzeko La Burundesa enpresarekin negoziaketak egin dituzte. Autobusa enpresa honetakoa izango da, baina Jaibusen logotipoa eramango du, jendea autobus arruntekin ez nahasteko. Joan-etorriaren truke 150 pezeta or-

daindu beharko dira, kantitate erabat sinbolikoa. Autobusean txartelak kobratuko dituen langile bat joango da, eta aldi berean prebentzio kanpainako informazioa banatuko da».

Ttipi-ttapak, bestalde, Malerrekako berriei eskaini tartean, Beintza-Labaiengo Udalak uso-ehiza postuak enkantean atera dituela azpimarratu du azken zenbakian: «Enkantea uzta-laren 26an egingen da, eguerdiko 12:00etatik aitzinera Herriko Etxean. Ehiza-koto hauek lau urterako emanen dira eta enkantea ahoz egingen da».



urdairen mintzoa

Xabier Larraburu

People

Salan Australiako bi tipo eta hiru neska iparamerikar sartu ditut. Bost koltxoi jarri badizkiet ere susmoa daukat horietako lau besterik ez dituztela erabiltzen. Bikote bat osatu da beraz. Bejondeiela (kabroiak). Nire gela Bordeleko bi mutil sartu ditut. Heterossexualak, ez pentsa. Egunerok, sukalea eta komuna garbitzeko «Good Morning!» ozen batekin etxean azaltzen naiz. Korridoretik oraindik ere beste «Bonjour!» bat botatzen dut, badaezpada ere. Kontua da beren intimitatea babestea. Ez ditut komunetik biluzik ateratzen ikusi nahi (gizonezkoak behintzat), edota salako ditxosozko koltxoien gainean taldeko sexua egiten. Frantses bategen ni ikusi orduko «Allez, Zidane!» oihukatzen dit. Beti. «Allez, Zidane!». Lehendabiziko egunean, zer edo zer esateagatik, Zidane gustuko nuela esan bainon. Gogaiturik nauka bere oihuarekin baina gau bakoitzean 25.000 pezeta kobratzen dizkiet. Gauza latzagoak oihukatzekeo eskubidea badu beraz. Komuna egiterakoan nazkaten naiz. Seguro nago beren etxetan garbiagoak izanen direla. Okatutakoak bilduko dituztela eta beste. Hemen ez. Gainera, berrietako batek Iruñean ile guztia galtzea erabaki omen du. Nire bainugelan. Ile mataza nazkagarriagorik! Kolorearengatik australiano batena dirudi. Berriek etxean ez direla, ile mataza eskuan dudala, koltxoien gainean makurtzen naiz ea jabeari buruz zer edo zer atzeman dezakedan. Orain arte ez dut asmatu. Hori bai: konturatu naiz koltxoi batean ez dagoela gorputzek uzten duten epeltasun edo ile arrastorik. Ez dutela erabiltzen alegia. Niri Ipar Amerikako nesken artean argalena gus-tatzen zait. Irribarretsu agurtzen nau gainera. Lehengoan ezpainak pintatzeko tramankuluarekin bainuko ispiluan zer edo zer jarri zidan. Hiztegiarekin ibili nintzen gora eta behera, baina esaldi zahar bat edo izango da, ez bainion zentzurik aurkitu: «Bele gazta iragana»??? Hori ona izango al da? Edo mardarikatzen bat? Ipuin batetik ateratakoa dirudi. Badakizue, nola beleak ahoa ireki eta bertan zuen gazta lurrera erori zen, azeriarendako. Nire banitateaz ari al da? Ez dakit. Maitemindurik nauka. Gustura joan nintzen Nabarrieko plazara ea bere burua iturritik botatzen duen ikustera. Azeriaren antzera zabal-zabalik jarriko nituzke besoak. Ai!, gazta hori nigana eror ahal baile! •

Kontrolpeko bainuak

Nafarroako Gobernuak kontrolatzen dituen bainatzeko eremu gehienak egoera onean dira



Ingurugiro Departamentuak bainatzeko eremuak sailkatzen ditu eta zenbait udalek euren uren egoeraren berri ematen duten kartelak paratzen dituzte. Baina hesirik ez dute jartzen. Kontrol gabeko urretan edo azterketa gaititu ez duten urretan sartzen denak hoberena du ur tragorik ez hartzea, edo kanoa ala txalupa erabiltzea. ● INAKI VERGARA

Udako eguzkiak erretako gorputzak freskatzeko ibaietara edota urtegi-tara joaten direnendako, Nafarroako Gobernuak Ingurugiro Departamentuak bainatzeko hogeitun natur eremu kontrolatzen ditu urtero. Antza, egoera onean dira natur eremu gehienak, Burgikoa eta Murietakoa izan ezik. Kontrolpeko bainua nahi duenak, hau da, azterketa kimikoa gaititu duten urretan bainatu nahi duenak, badaki nora jo. Ondoko mapari begiratzea besterik ez du.

Ingurugiro Departamentuak urtero egiten du bainatzeko natur eremuen ur kalitatearen kontrola, Europako kontrolpeko sarean (11 eremu) zein barne kontrolpeko sarean (9 eremu). Pedro Zuazo Ingurugiro Kalitatearen Zerbitzuan lan egiten du, eta bainatzeko eremuen kontrolaz arduratu da. Berak dioenez, kontrolatutako hogeitun eremu horiek hartu dituzte bainulari gehien hartzen duten eremuak direla. «Baina, ez bairik gabe, jendea bainatzen den leku gehiago badaude», dio Zuazok.

Europako kontrola Otsagi, Uztarroze, Burgi, Aurizberri, Zudaire, Zarrakaztelu, Gesalatz, Beriain, Tuter, Lizarra eta Nabaskoze eremuetan egiten dute. Eremu horietako datuak Madrileko Osasun Ministerioari bidaltzen dituzte, eta hark Europako Batasunari bidaltzen dizkio. Barne kontrolpeko eremuak, berriz, hauek dira: Ezkaroze, Usun, Allin-Artabia, Zuñiga, Murieta, Betelu, Errezu, Elorriaga eta Urrotz.

«Azterketa egin eta datuak udalerriei ematen zaizkie», azaldu du Zuazok. «Eta arazoak egonez gero, konpontzeko neurriak hartzea edo azterketa sakonagoak egitea proposatzen diegu». Hau da Departamentuak egiten duen guztea, ez bainatzeko eremuak ez baitituzte hesitzen. «Jendea kontrolatzea zaila da», komentatu du Zuazok. «Dena den, aztertzen ditugun uren arazoa ez da fisikoa, bakteriologikoa baizik. Beraz, ur horietan sartzen denak ez du inondik inora ur tragorik hartu behar». Hortaz, gorputza edozein lekutan freska daiteke, baina ez zarrakaztelu.

Egoera onean

Kontrolaturiko eremuen azterketen emaitzei erreparatu gero, erran daiteke, salbuespenak salbuespen, Nafarroan bainatzeko eremuak egoera onean daudela. Osasun Publikoaren Institutuko la-

borategiak eremu bakoitzeko azterketa mikrobiologikoa eta fisiko-kimikoa egin du. Eremu bat ontzat jotzen da baldin eta, osasun baldintza oneko ura izateaz batera, bere inguruneak azpiegitura aproposa badu. Onargarritzat jotzen da azpiegiturarik ez badu; eta bainatzeko desegokitzat jotzen da azpiegiturarik ez badu eta ur kalitatea txarra bada.

Kontrolpeko hogeitun eremuetatik bederatzik ur kalitate ona dute, beste bederatzik ur kalitate onargarria dute eta gainontzeko bien ur kalitatea ez da bainatzeko egokia. Ezka ibaian, Burgitik pasatzen den eremuan, eta Egan, Murieta parean, ez bainatzeko gomendioa eman du Ingurugiro Departamentuak. Bainulariak beste hamazortzi ditu aukeran.




→ Asier Azpilikueta

Ingurugiro Departamentuak kontrolatzen dituen bainatzeko eremu naturalak:


- ♦ **Allin - Artabia** (Urederra ibaia, zubia): Ingurune eta ur kalitate ona.
- ♦ **Ameskoabarren - Zudaire** (Urederra ibaia, Zentrala): Ingurune ona eta ur kalitate onargarria. 1996tik indarrean zegoen bainatzeko debekua kendu da.
- ♦ **Aurizberri** (Urrobi ibaia, kanpina): Ur kalitate onargarria eta ingurune ona. Abere hondakinak ez isurtzea gomendatzen da.
- ♦ **Betelu** (Araxes ibaia, presa): Ingurune ona eta ur kalitate onargarria (aurreko urtekoa baino hobea). Hondakin solidoen bilketa egitea gomendatzen da.
- ♦ **Burgi** (Eska ibaia, presa): Ur kalitate txarra, Europako Batasunaren 76/160 direktibak eskatzen duen gutiengoa betetzen ez duelako. Bainatzeko ez da egokia. Herri ondoko abeltzaintza eta hondakin urak kontrolatzea gomendatzen da.
- ♦ **Elorriaga** (Ezkurra ibaia, presa): Ingurune eta ur kalitate onargarria (aurreko urtekoa baino hobea). Paperontzi gehiago paratzea gomendatzen da.
- ♦ **Errezu** (Ubagua ibaia): Ingurune onargarria eta ur kalitate ona (aurreko urtekoa baino hobea).
- ♦ **Ezkaroze** (Zaraitzu ibaia, ibai igerilekua): Ingurune ona eta ur kalitate onargarria.
- ♦ **Beriain** (Morea aintzira): Ingurune txarra eta ur kalitate onargarria, nahiz eta aurreko urtekoa baino eskasagoa den. Paperontziak falta dira eta hondakinak maizago bildu behar dira.
- ♦ **Gesalatz - Lerate** (Allozko urtegia, Alor Biribila): Ingurune onargarria eta ur kalitate ona.
- ♦ **Lizarra** (Agua Saladako iturburua): Ingurune onargarria eta ur kalitate ona.
- ♦ **Murieta** (Ega ibaia, Espildolla): Ingurune ona baina ur kalitate txarra. Bainatzeko ez da egokia. Legaria eta antzinako hondakin urak kanalizatzea gomendatzen da.
- ♦ **Nabaskoze** (Benasako arroila, ibai igerilekua): Ingurune eta ur kalitate ona.
- ♦ **Otsagi** (Anduña ibaia, ibai igerilekua): Ingurune eta ur kalitate ona.
- ♦ **Tutera** (Pulguer aintzira): Ingurune eta ur kalitate ona.
- ♦ **Urrotz** (Leurzako urtegia): Ingurune eta ur kalitate ona.
- ♦ **Usun** (Zaraitzu ibaia, San Pedroko zubia): Ingurune eta ur kalitate ona (aurreko urtekoa baino hobea).
- ♦ **Uztarroze** (Uztarroze ibaia, ibai igerilekua): Ingurune eta ur kalitate onargarria. Departamentuak aholkatu du ibaian goitiko borden bildurik dauden abere hondakinak handik kentzeko.

- ♦ **Zarrakaztelu** (Aragoi ibaia, presa): Ingurune ona eta ur kalitate onargarria, nahiz eta aurreko urtekoa baino tikiagoa den. Hondakin solidoak biltzeko tokirik ez da.
- ♦ **Zuñiga** (Ega ibaia, Arquijs): Ingurune eta ur kalitate onargarria.

Uren kalitatea Nafarroako ibaietan



‘Nafarroako ibaiak’ erakusketa



Egunotan Bertizko Natur Interpretazio Zentroan ikusgai dago *Nafarroako ibaiak* izeneko erakusketa. Nafarroan diren 64 ibai eta erreka garrantzitsuenen berri ematen dute bertan. Horretarako hainbat panel paratu dituzte, baita mapa hidrografiko handi bat eta ur errota baten maketa ere. Gainera, galde-erantzunetako bideojoko batean jolasteko aukera dago. Erakusketan ibaien deskribapena egiten da, eta aztertzen ibaiak Nafarroaren historian, ohituretan, ekonomian eta kulturaren izan duten eragina. Erakusketa ttikia da, eta egiten duen azterketa ez da sobra sakona. Akaso, kanpotarrendako egina dago. Hortaz, Nafarroako ibaiak ezagutu nahi dituenak hobe du zuzenean beren urretan freskatzera. Erakusketa uztailaren 19a arte egonen da Bertizen. Gero, Erronkariko (uztailak 21-abuztuak 11) eta Otsagiko (abuztuak 12-31) zentroetara eramanen dute.

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Lizasotarrak

Lizaso aita-semeena idazle sentibera, txistulari iaio eta gudari bipilen familia izan bagenuen ere, gure artean nahikoa ezezagun jarraitzen du, tamalez, beste horrenbestek bezala.



Gillermo Lizaso, 'Litargi' Guillermo Lizaso Bilbon jaio zen 1884an. Musika munduan arras sarturik, Tolosako orfeoiaren baxua izan genuen. Alejandro seme-ari laguntzeagatik, berrogei urterekin txistua jotzen ikas-teari ekin zion, txistulari ez ezik baita txistu egile oparo bilakatu zelarik. 36ko gerratean Itxarkundia batailoian sartu zen gudari, bere bi semeak bezala. Euskal idazlea ere bazen izan, Litargi ezizenarekin —hau da, Lizaso'tar Guillermo—; alabaina, bere gaien artean txistuarenak berebiziko garrantzia hartu zuen. *Euskal Esnale*-koek deituta, *Danbolintero ta txistulariak* izenburuko hitzaldia eman zuen Donostian 1931eko maiatzaren 3an. Oraino argitaragabe dirauen hartan Iztueta-ren lana zein txistularien izaera izan zituen mintzagai, txistularien artean sustraitu moda berriak zein hauspo-soinuaren arrakasta biziki deitoratuz. Txisturako lan berriak konposatzen zituztenei ongi zeritzen, funtsean, polka, mazurka, habanera edota bolero beharrean euskal soinuak aukeratzen zituztelako. Honetan ezin garbiagorik azaldu zitzaigun: «Euzkotarrak, ona emen ikasbide ederra, Maitasuna utzirik, euzko-izaera galdu zutenean, baztertuak izandu ziran txistulariak. Lengo bidera gogoz eta leyatsu, maitekor biurto diranean erriak pozez beterik artu ditu. Euzkotarrak, beti aurrera nayan, zoritarrez atzera inoiz begiratu gabe jardun degu, bertakoa bazterturik atzerrikoa ederre-

tsiaz». Horrelako testu dogmatikoez gainera, Guillermo Lizasok txistuari zion maitasuna olerkien bitartez adierazi zuen. Honen adibideak *Aspaldi ontan itxiya egon da* —*Argia*, 1930, 503 zbk.— edota *Txoriak eta txistulariak* —*Amayur*, 1933-IX-29, 123 zbk.— olerkiak izan daitezke. Iruñeko astekarian argitara emaniko bigarrenean honela zioskun Euskal Herriko Txistulari Elkartearen sorreraz: «Txistulariari uda berria / irixi zaio zorionean / batu, indartu, bai ere gertu / eresi zarraz dabil lanean; Arrate, Eibar, poztu ziraden / Gasteiz ta Bilbo era berean / donostiarrak poztutzen dira / txistulariak datozenean / eta Baionan

Alejandro Lizaso Eizmendi

Gillermoren seme txistularia Orion jaio zen 1909ko azaroaren 9an. Trebetasun handiko txistu jotzailea, Donostiako Euzko Gaztediaren txistu bandakidea eta Errenteriako Udalaren lehenengo txistua genuen. Horren arrakasta zabala jaso zuen ezen Mexikora joan zen hango Euzko Etxeak deituta. Gerratea iristean Europar barrena euskaldunen berri emateko mandatua eman zion Euzko Jaur-laritzak, alta, etxean geratzea hobetsirik, Itxarkundia batailoian sartu zen, buruan jaso zuen tiro batek lehenbiziko guda lerroan bertan hil zuela. Alejandro Lizasoren lanik eza-gunena, ordea, *Eusko guda-riak* ereserkiaren musika

dugu, *Asto baten gainean* doinu herrikoiairen gainean egina, eta Jose-ri Garatek eginiko *...*arekin egun-
ren ezagun dena. **Felipe Lizaso Eizmendi**, 'Muskilarrri' edo 'Liezpe' Aurrekoa bezala, Orion jaioa, 1908ko apirilaren 30ean. Gudarien komandantea. Gerratean preso hartu eta heriotza zigorra ezarri zioten, alabaina hil beharrean kartzelan mantendu zuten luzaro. Euskal idazle emankorra *El Día*, *Euzkadi* eta



urrun zan arren / beren artean joan giñanean / zoraturikan arkitzen ziran, / poza zeukaten biotz barnean, / txaloka ezin asperturikan / erestaldia amaitutzean, / ta Alkate jaunaren esana / beti gordeko det biotzean / txistularia arkitzen dala / mugarik gabe ibai ertzean / orrengatikan saya gaitean / pozturik gogoz orok lanean».

idatzi zuen gerra aurretik, eta ostein ere *Deia* egunkarian *Hitz-gurutatuak* denborapasa egin du. Hainbat liburu argitara gabe utzi ditu Felipe Lizasok: *Arrain hiztia*, *Itsaso ta ibaietako arrain*, *oskoldun*, *soinbera ta arredidunen errol-da*, edota *Izabere ezagunak*, eta Errenterian gerra aurretik estreinatu *Itzalpean sendotasuna* antzerkilanaren egilea ere izan genuen.

etorri ahalean

Patziku Perurena



Herodotogandik guganaino II

Ondoko pasarteak, Herodotoren *Historiak* I liburutik hartuak dira. Orain hiru mila urtetik goitiko kontuak, alabaina, atzokoak iruditu zaizkit niri.

AKERRA, PAN SEXUA: «Egiptoko pintore eta irudigileek Pannen irudia ahuntzburudun eta akerhankadun marrazten eta zizelatzen dute, baina, zergatik horrela marrazten duten esatea ez zait atsegin. Mendestarrek ahuntz oro gurtzen dute eta arra gehiago emea baino, eta ahuntzainek begiramen handiagoa diete arrei, eta hauetatik bati bereziki, zeinak hiltzen duen samin handia uzten duen mendestar nomo osoan. Hain zuzen, akerrari eta Pani egiptoeraz Mendes deritzete. Eta ene garaian nomo honetan izugarritzko bat gertatu zen: akerra emakume batekin lotu zen, eta hau jendearen ikusmenera iritsi zen».

Oroit gure sorgiñak, aker beltza, izua (Pan), gauen gauerdia, lujuria; hots: elizak ezin hezi zuen azken ijitojendea, alegia.

BILAU NOBLETUAK: «Egiptoarren artean zazpi kasta daude: apaizak, gerrariak, itzainak, zerrizainak, merkatariak, interpretariak, eta lemazainak. (...) Ezin dut segurantziz esan, heleniarrek hori ere egiptoarren-gandik ikasi zutenik, ikusten baitut traziarrak, szitiarrek, pertsiarrek eta lidiarrak eta ia barbaro guztiek, lanbideak ikasten dituztenak eta hauen ondorengoak, beste hiritarrek baino duintasun eskasagokotzat dauzkatela, eta eskulanetik libre daudenak, eta bereziki gerrarako daudenak jatorragoak direlakoan daudela».

Hortik guretarren gerrarako afana: nobleza eta diru erraz bila. Zenbat exekutoria, zenbat armarrri, ijito euskaldunenak, gerra eta ofizialkeria aitzakia beren gutiustea nobletu nahian. Edo zenbat eusko gudari, zenbat etar, ijito kastako, arrazoi beratsuagatik?

URDEZAINAK APARTE: «Zerria, ordea, egiptoarrek abere kutsatutzat daukate. Alboan igarotzean norbaitek uki baleza, berehalaxe, kutsutik garbitzeko, bere arrokekin sartu ohi da uretan. Zerrizainak, berriz, jatorriz egiptoarrek izan arren, denetan bakarrak dira inongo tenplutara sartzen ez direnak, eta inork ez die berean alabarik ezkongai eman nahi, ez eta beraien artetik bestek hartu ere; hala zerrizainek elkarren artean eman eta hartu ohi dituzte ezkontideak».

Gure paper zaharretan maiz ageri da «porquerizo», *baquero*, *cabrero*, *mulatero*... Zenbat baserritar edo abeltzain ote da oraindik euskal herrian ijito kastako? Milaka eta milaka. Eta ezkontzekoan, kasta berekoak nola bilatzen zuten (duten) elkar, herrian bertan ezezik, herri batetik bestera, eta askotan zakurraren ipurdira ere! Esanda ezin sinistu liteke.

KURANDERO, ALBAITERO: «Dariok, pizti ehizan zebilela, zalditik jauzi egitean, hanka bihurritzea gertatu zen; eta bihurritu ere larriki bihurritu bide zuen; orkatila atera baitzuen hankajokoetatik. Eta lehendik ere sendakuntzan gorenekoak ziruditen egiptoarrek inguruan izateko ohitura zuelarik, haietaz baliatu zen; baina haiek hanka bihurrituz eta behartuz, kalte handiagoa egin zioten. Zazpi egun eta zazpi gau, zuen eritasunagatik esna egon zen; zortzigarren egunean ordea, Demozedesek heleniar sendabideak erabiliz loa beregana zezan lortu zuen, eta denbora gutxi barru hanka onik jarri zitzaion».

Sorgin, brujo, azti, kurandero, albaiteko, petrikilo... Garai bateko zirujaua ofizio bilaukoa zen. Gaur doktore zuri izanen dira haren semeen alaben seme-alabak. Baina zenbat ote dira gure artean ijito kastako?

Eta 7tik 8rako aldaketa horrek, ez al dirudi gure baladatako berbera?

Ziria

• Motxorrosolo •

Lizarrakoa

Tresna oro baliatuz eginen da. Inoren aburuz, epea jarri zaio Lizarrako lehendakariaren agintaldiari. Maleruskiki, dauden tokitik, proposamen interesgarrienak plazaratu dituztenak azkonen jomuga bilakatzen dira, geziak nonahitik heltzen badira ere. Tankera horietako pasadizioak ohikoak, historikoak gurean.

Luis Felipe Sarasa

IRUÑEKO GANBERA ABESBATZAKO LEHENDAKARIA

«Elitera itzuli nahi dugu»

Beste garai bateko ospea eta izena berreskuratu nahi ditu Iruñeko Ganbera Abesbatzak, eta, horretarako, taldea musikaren elitera itzultzeko, plan estrategikoa prestatu du, profesionalizazioa eta espezializazioa bultzatzeko.

1946. URTEAN SORTU zuen Luis Morondo musikariak Iruñeko Ganbera Abesbatza. Munduko antzoki eta jaialdi garrantzitsuetan abestu du, eta, orain, azken urteotan berritze prozesua abiatu ondoren, galdutako distira berreskuratu nahi du. Abesbatzaren asmo ez mintzatu zaigu Luis Felipe Sarasa lehendakaria.

■ Zeintzuk izan dira plan estrategikoko hori egiteko arrazoiak?

Arrazoi nagusia izan da ohartu garela merkatua asko aldatu dela, eta egungo egoerari aurre egiteko, aldaketak egin beharra zegoen. Oraingo eta duela 15 edo 20 urteko egoera ez da, inondik inora, berdina. Batetik, egungo eskaintza askoz handiagoa da. Batez ere ekialdetik talde asko dator, eta ia afariaren truke edozein lekutan abesteko prest daude.

Bestalde, azken bost urteotan hainbat aldaketa izan dira abesbatzaren baitan. Jende gazte asko sartu da, jende presatua, musikari esker bizi nahi duen jendea.

■ Profesionalizazioa eta espezializazioa dira plan horren ardatz nagusiak.

Hala da, horiek baitira egungo merkatuari aurre egiteko gakoak. Profesionalizazioari dagokionez, lau pabost urteko epea aurreikusi dugu helburu hori lortzeko. Badakigu erronka handia dela, baina lan egiteko prest gaude. Espezializaziori buruz, berriz, azpimarratu behar da Iruñeko Ganbera Abesbatzaren

errepertorioa zabala izan dela beti, baina, orain, musika garaikidearen bidetik jo nahi dugu. Bide hori jorratzen duten talde gutxi dago, eta guk hutsune hori bete dezakegu la uste dugu, Gonzalez Azilu, Etxeberria, Marco edo Pastor bera bezalako konpositoreen lanak abestuz. Hala ere, ez ditugu gure herriko kultura eta musika ahaztuko.

■ Plan estrategikokoaren bidez zein da bete nahi duen helburu nagusia?


Musikaren elitera itzuli nahi dugu, beste garai batean nazioartean izan genuen ospea berreskuratu nahi dugu. Abesbatzaren ibilbidea kontuan hartuta uste dugu hori dela planteatu dezakegun helburu bakarra.

■ Helburu hori lortzeko, erakunde publiko eta pribatuaren laguntza eskatu duzue. Baina ez zarete ba-

karrak; Sarasate Orkestra edo Iruñeko Orfeoia ere ari dira azken urteotako krisitik ateratzen, eta aurrera egin nahian. Talde guztien beharrik asetzea posible dela uste duzue?

Nik uste dut mailak zehaztu behar direla, ez baita gauza bera Orfeoia edo Ganbera Abesbatza profesio-

nalizatzea. Nik uste dut Ganbera Abesbatza musika maila altuagoetara irits daitekeela, eta Iruñeko eta Nafarroako ordezkari gisa funtzio garrantzitsuagoa bete dezakeela. Espero dut Orfeoia aurrera egitea lortuko duela, baina denbora asko galdu duela uste dut. Ez nuke errango Ad-



● JOXE LACALLE

ministrazioaren laguntzak jasotzeko orduan pribilejiozko egoera batean dagoenik Ganbera Abesbatza, baina, lan egiteko gogoari, egituraketari eta mentalizazioari dagokionez, beste taldeak baino aurrerago gaudela uste dut.

■ Zer gertatutako da datozen bospasei urteetarako zehaztutako helburuak lortzen ez badituzue?

Ez dugu pentsatu, gauzei gertatu ahala egingen diegu aurre. Baina gehien kezkatzen nauena da gure helburu musikala ez lortzea, hau da, abesbatzako kideek amore ematea. Izan ere, astean lautan egiten dituzte entseguak, bi ordu eta erdiz egunero, eta hori ez da erraza. Ez du beste inork egiten. Kideen konpromiso hori da abesbatzak duen ondare nagusietako

bat, baina konpromiso hori elikatu egin behar da. Eta nola? Ba, kontzertu edo bira garrantzitsuen bidez. Abeslariak motibatuta badaude, ilusio eta gogo handiago izanen dute lan egiteko, eta lan egiten badugu, errazago izanen da geure burua ezagutzera ematea, nahi duguna lortzea.

■ Nola definituko zenuke oraingo egoera?

Trantsizio garaia da. Abesbatza ongi dagoela uste dut, jende gaztearekin, eta nabarmentzekoa da, halaber, Koldo Pastor zuzendariaren lana. Badakigu aurtengoa ez dela bira handiko urtea izanen, baina, hurrengo urtean, dagoeneko, Belgika, Holanda eta Alemaniara joateko proiektua dugu esku artean.

→ Edurne Elizondo

soslaia

Duela hamalau bat urte izendatu zuten Luis Felipe Sarasa Iruñeko Ganbera Abesbatzako lehendakari, baina taldean denbora gehiago darama. Abesbatza asko maite duela dio lehendakariak, eta taldean jende gutxi dagoela bere kargua hartzeko prest.

«Esperientzia izugarriak bizi izan ditugu denok abesbatzari esker», azpimarratu du, eta hainbat urtetan Ganbera Abesbatzak mundu osoko jaialdi eta antzokietan emandako kontzertuak ekarri ditu gogora.

Beste garai bateko ospea berreskuratu nahi du abesbatzak orain. Lehen urratsa taldearen kudeaketa bere gain hartu duen batzorde eragilea eratzea izan da. Abesbatzako hiru kidek osatzen dute, eta euren lana izanen da helburuak lortzeko laguntza bilatzea.



Nafar Kronika

Pello Argiñarena

Review

00-07-07 23:30 pm.

Niza taberna. Lagunekin hitzordua. Su artifizialen zalapartarekin batera atera naiz etxetik. Bidean kutxazain automatikotik hamar mila pezeta atera ditut. Zertan gastatu ote nituen atzo hamabost mila pezeta? Zerbait pikatu dut etxetik irten aurretik. Auskalo noiz afalduko dugun gaur ere. Arropa zuri pare bakarra daukat. Beraz, Lewis urdinak jantzi ditut. Sanex litro erdia behar izan dut dutxatzerakoan zikinkeria gaitetik kentzeko. Bizarra egiten nengoela, amak deitu du telefonoz: «Etorri bazkaltzera bihar, sin falta».

Horren aurretik, telebista piztuta zegoela esnatu naiz, sofán etzanda. Lo seko nengoen Canal 4 aspergarria ikusten, noski. Arratsaldeko sei eta erdiak aldera bazkaldu dut. Etxe honetan ez dut ezer plantakorik aurkitu sabela betetzeko. Azkenean, meloi bat agertu da hor nonbait eta poliki-poliki oso-osorik irentsi dut.

Mailu bat neure buruan kinki-kanka kolpatzen ari da. Almax pare bat hartu dut bestondoari aurre egiteko. Hau kiratsa! Skip bote osoa beharko dut lurrean barratuta dagoen arropa nazkagarria garbitzeko.

Arratsaldeko bostetan jaiki naiz. Altxatzeko baino gehiago, tea hartzeko tenorea. Logelan sartu den argi izpi batek zabaldu dizkit begiak. Izerditan esnatu naiz. Pello Argiñarena

gure aukerak

MUSIKA

- **Iruñea:** Gaur, Hemendik At! taldeak eta Bittor Aiapex Media Luna parkean joko dute, gaueko hamabietan.
- **Iruñea:** Bihar, Barricada rock taldea Foruen enparantzan izanen da 00:00etan.
- **Iruñea:** Kepa Junkera trikitilariak kontzertua eskainiko du igandean, 00:00etan, Media Luna parkean.

ANTZERKIA

- **Iruñea:** Leo Bassi aktoreak *Instintos ocultos* antzezlan eskainiko du sanferminetako egun guzietan, 21:00etan eta 00:00etan, Nafarroako Antzerki Eskolan.
- **Iruñea:** Mira antzoki berrian, Las Veneno bikoteak *Tú no tienes la culpa Federico* lana taularatuko dute bihar eta etzi, 21:00etan eta 00:00etan. Astelehenean *strip tease* ikuskizuna izanen da, 01:00etan. Asteartean, Los Ulen sevillarrek *Mana, Mana* lana antzeztuko dute.

BERTSOLARIAK

- **Azkarate:** Gaur eguerdian Joxe Agirre eta Imanol Lazkano ariko dira.
- **Iruñea:** Bihar, Media Luna parkean, 12:00etatik aurrera jaialdia izanen da Amets Arzallus, Igor Elortza, Peñagarikano eta Imanol Lazkanoekin.
- **Lesaka:** Igandean, 20:00etan, Amets Arzallus, Sebastian Lizaso, Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Iñigo Olaetxea eta Xabier Silveira ariko dira besten karietara antolatutako jaialdian.

ERAKUSKETAK

- **Iruñea:** Fermin Erbiti eta Javier Maneroren *Sanferminak* liburuan ageri diren

argazkiekin erakusketa antolatu dute Zapateria karrakako aretoan. Argazkiak uztairen 16 arte daude ikusgai.

LEHIAKETAK

- **Iruñea:** Haurrei zuzenduriko antzerki testuen IX. lehiaketarako lanak aurkezteko epea abuztuaren lehen akituko da. Egileek gehenez hiru atzezlari aurkeztu ditzakete, euskaraz edo gaztelaniaz. Lanak Nafarroako Antzerki Eskolaren egoitzan entregatu

behar dira (San Agustin, 5). Iruñeko Udalak 250.000 pezetako saria emanen die euskarazko eta gaztelaniazko irabazleei.


- **Iruñea:** Egile Berrientzako XV. Literatur Lehiaketarako lanak aurkezteko epea urriaren 31n akituko da. Lanak Iruñeko Udaleko Erregistroan entregatu behar dira. Lehiaketak lau sail ditu (olerkia, narrazio laburra, bertso-paperak eta komikia) eta orotara 1.570.000 pezeta banatuko dira sarietan. Egileek Nafa-

rroan bizi behar dute, eta lehiaketa honetan-modalitate berean hiru aldiz saritu duten inork ezin izanen du parte hartu.

OHARRA

Sanferminak direla eta, heldu den ostiralean ez da Nafarkaria-rik izanen. Hurrengo Nafarkaria, beraz, uztairen 21ean plazaratuko dugu. Ongi pasa, eta Gora San Fermin!

• JOXE LACALLE



Udalak...

Arrotxapeko jaiak debekuz josi zituen, bertan behera uzteraino. Sanferminetako txupinazoa botatzeko ohorea Cesar Palacios eman zion, ohore hori zuen taldearen proposamenari batera jaramonik egin gabe. Bestetako egitarau eleanitza argitaratu zuen (25.000 ale gaztelaniaz, 5.000 euskaraz, 4.000 ingelesaz, 4.000 frantsez...). Nafarroa Oinezeko txosna Espainiako erregioetako etxeen ondoan paratu nahi zuen (azkenean, Argentinakoaren ondoan jarri du). Su artifizialen lehiaketaren bozketan parte hartu nahi duten herritarrei Cordovillako egunkaria erostera behartu ditu... Gaztelaniaz bada hitz bat Udala bere herritarrekin egiten ari dena azaltzeko. Tira, euskaldunak nahikoa du ondoko irudiarri begiratzearekin Udalak arboletara igotzen diren iruindarrekin egiten duena konprenitzeko.